

Funtzio Publikoa: Foru Administrazioiko eta Funtzio Publikoko Departamentua

DPTA. ETA €	FORU ADMINISTRAZIOKO ETA FUNTZIO PUBLIKOKO DEPARTAMENTUA 04 2013: 35.526.185 €						
Programa eta €	Izena: Funtzio Publikoa 20						
	Genero garrantzia: Ertaina						
	Aurrekontua: 5.198.511						
		2011	2012	2013	12/11	13/12	
GASTUA EUROTAN	6.814.318	6.121.994	5.198.511	% -10,16	%-15,08		
PORTZENTAJEA, DEPARTAMENTUAREN AURREKONTUAREKIKO	% 16,83	% 15,90	%14,63	% 5,52	%-7,99		
Programan jasotako helburuak, hartzaileak eta jarduerak	Aurrekontu programa honetan jaso dira Departamentuak Giza Baliabideen alorrean izango dituen jarduera-ildo nagusiak.						
	Programaren helburu nagusia da giza baliabideen gaitan Departamentuan komunak diren programak eta proiektuak bultzatzea eta koordinatzea; eta horretarako, giza baliabideen politika diseinatzea, onartzea eta Departamentu bakoitzean ezartzen laguntzea; langileria kudeatzeko, hautatzeko eta sustatzeko prozesuak hobetzea; ordezkari sindikalekin Funtzio Publiko, Antolakuntza, eta Gizarte nahiz Lan arloko gaitan egiten diren negoziazioetan Departamentua ordeztea; lan arriskuen prebentzioa eta laneko segurtasuna garatzea eta bultzatzea; eta langileria prestatzea.						
Analisi kuantitatiboa, generoaren arabera	Langileriaren banaketa, sexu eta sailkapen multzoaren arabera:						
	Generoa	A1	A2	C1	C2	E	Guztira
	Hutsik	49	27	16	44	27	163
	Gizonezkoak	242	137	143	369	39	930
	Emakumeak	176	253	339	120	51	939
	Guztira	467	417	498	533	117	2032

Langileriaren banaketa sexu eta kontratu motaren arabera

Orok.	Kar. funtz.	Polit.	Aldi bat.	Aldi bat. lang.	Bitartekoa	Aldizk lang. finkoa	Lang. finkoa	Goi kargua	Ez-espe.	GUZTI RA
Hutsik	1	9	18		1				134	163
Gizon ezkoak	752	13	4	2	135	9	11	4		930
Emakumeak	615	7	5	11	257	31	8	4		939
GUZT.	1.368	29	27	13	393	40	19	8	134	2.032

Langileriaren kostua sexu, Departamentu eta sailkapen multzoaren arabera

Departamentua/Departamento	Generoa/Género	Taldea/Grupo					Guztira/Total
		A1	A2	C1	C2	E	
01. DIPUTATUNAGUSIA DIPUTADOGENERAL	Betegabe/Vacante	306.310,00		47.082,00			353.392,00
	Gizona/Hombre	817.685,00	277.261,00		38.138,00		1.133.084,00
	Emakumea/Mujer	224.572,00	387.906,00	287.598,00			900.076,00
Departamentuguztira/Totaldepartamento		1.348.567,00	665.167,00	334.680,00	38.138,00		2.386.552,00
02. KULTURA,GAZTERIAETA KIROLDEPARTAMENTUA DEPARTAMENTODECULTURA, JUVENTUDY DEPORTE	Betegabe/Vacante	322.087,00	93.812,00		34.862,00	252.181,00	702.942,00
	Gizona/Hombre	1.286.566,00	575.798,00	395.661,00	226.029,00	317.905,00	2.801.959,00
	Emakumea/Mujer	1.247.508,00	682.025,00	1.384.151,00	199.759,00	1.019.948,00	4.533.391,00
Departamentuguztira/Totaldepartamento		2.856.161,00	1.351.635,00	1.779.812,00	460.650,00	1.590.034,00	8.038.292,00
03. GIZARTEPOLITIKAKODEPARTAMENTUA DEPARTAMENTODEPOLÍTICASOCIAL	Betegabe/Vacante	538.771,00	46.906,00		313.758,00	191.464,00	1.090.899,00
	Gizona/Hombre	1.809.796,00	640.988,00	466.010,00	193.853,00	339.334,00	3.449.981,00
	Emakumea/Mujer	2.220.833,00	2.707.734,00	1.868.531,00	1.866.667,00	466.333,00	9.130.098,00
Departamentuguztira/Totaldepartamento		4.569.400,00	3.395.628,00	2.334.541,00	2.374.278,00	997.131,00	13.670.978,00
04. FORUADMINISTRAZIOKOETA FUNTZIOPUBLIKOKO DEPARTAMENTODEADMINISTRACIÓNFORALY	Betegabe/Vacante	349.669,00	59.079,00	85.675,00	810.453,00	32.120,00	1.336.996,00
	Gizona/Hombre	2.271.060,00	319.019,00	2.162.091,00	11.596.222,00	72.849,00	16.421.241,00
	Emakumea/Mujer	1.433.776,00	442.121,00	1.944.207,00	259.381,00	216.800,00	4.296.285,00
Departamentuguztira/Totaldepartamento		4.054.505,00	820.219,00	4.191.973,00	12.666.056,00	321.769,00	22.054.522,00
05. OGASUNETAFINANTZADEPARTAMENTUA DEPARTAMENTODEHACIENDAYFINANZAS	Betegabe/Vacante	347.321,00	340.315,00	83.809,00	101.560,00		873.005,00
	Gizona/Hombre	6.426.393,00	3.141.103,00	1.493.120,00	583.100,00		11.643.716,00
	Emakumea/Mujer	4.758.286,00	5.730.014,00	6.274.589,00	1.097.290,00		17.860.179,00
Departamentuguztira/Totaldepartamento		11.532.000,00	9.211.432,00	7.851.518,00	1.781.950,00		30.376.900,00
06. BERRIKUNTZAKO, LANDAGARAPENEOETA DEPARTAMENTODEINNOVACIÓN, DESARROLLO	Betegabe/Vacante	605.288,00			27.678,00		632.966,00
	Gizona/Hombre	2.441.590,00	931.939,00	505.149,00	3.001.096,00	495.457,00	7.375.231,00
	Emakumea/Mujer	887.098,00	815.241,00	1.936.406,00	572.572,00		4.211.317,00
Departamentuguztira/Totaldepartamento		3.933.976,00	1.747.180,00	2.441.555,00	3.601.346,00	495.457,00	12.219.514,00
07. INGURUMENEOETALURRALDEANTOLAKETAKO DEPARTAMENTODEMEDIOAMBIENTYORDENACIÓN	Betegabe/Vacante	491.588,00		136.163,00	65.994,00		693.745,00
	Gizona/Hombre	2.347.752,00	661.053,00	835.059,00	152.433,00		3.996.297,00
	Emakumea/Mujer	1.071.296,00	206.086,00	1.018.808,00	113.796,00		2.409.986,00
Departamentuguztira/Totaldepartamento		3.910.636,00	867.139,00	1.990.030,00	332.223,00		7.100.028,00
08. MUGIKORTASUNEKOETABIDEAZPIEGITURETAKO DEPARTAMENTODEMOVILIDADE	Betegabe/Vacante	525.699,00	109.934,00	360.135,00	110.182,00	98.991,00	1.204.941,00
	Gizona/Hombre	1.438.746,00	461.031,00	1.490.619,00	2.080.365,00	82.325,00	5.553.086,00
	Emakumea/Mujer	615.854,00	336.537,00	972.754,00	334.020,00		2.259.165,00
Departamentuguztira/Totaldepartamento		2.580.299,00	907.502,00	2.823.508,00	2.524.567,00	181.316,00	9.017.192,00
Guztira/Total		3.486.733,00	650.046,00	712.864,00	1.464.487,00	574.756,00	6.888.886,00
Guztira/Total		18.839.588,00	7.008.192,00	7.347.709,00	17.871.236,00	1.307.870,00	52.374.595,00
Guztira/Total		12.459.223,00	11.307.664,00	15.687.044,00	4.443.485,00	1.703.081,00	45.600.497,00
Guztira/Total		34.785.544,00	18.965.902,00	23.747.617,00	23.779.208,00	3.585.707,00	104.863.978,00

Buruzagitzen banaketa sexu eta sailkapen multzoaren arabera

Generoa	A1	A2	C1	C2	E	Guztira
Hutsik	12					12
Gizonezkoak	118	7	12	2		139
Emakumeak	47	9	46			102
Guztira	177	16	58	2		253

Aitatasun eta amatasun baimenen banaketa, sexuaren arabera

Generoa	Aitatasuna	Amatasuna	Guztira
Gizonezkoak	20	6	26
Emakumeak	0	28	28
Guztira	20	34	54

Adingabeei eta adinekoei laguntzeko baimen kopuruaren banaketa, sexuaren arabera

Generoa	Guztira
Gizonezkoak	151
Emakumeak	593
Guztira	744

Seme-alabak zaintzeko eszedentzia kopuruaren banaketa, generoaren arabera

HAURREN ZAINTZERAKO ESZEDENTZIEN GENEROAREN ARABERAKO BANAKETA

Genero / Generoa	Guztira / Total
Gizonak / Hombres	10
Emakumeak / Mujeres	27
Guztira / Total	37

Analisi edo gogoeta kualitatiboa

Foru Administrazioiko eta Funtzio Publikoko Departamentuan dagoen sexu-banaketari buruzko datu estatistikoak aztertu eta ikusita, honako gogoetak planteatu ditzakegu:

- Datuak aztertuta egiazta dezakegunez, hasteko, bi sexuen presentzia ia-ia orekatua eta berdintasunezkoa dago Gipuzkoako Foru Aldundiko langilerian. Era berean, banaketa berdintasunezkoa da generoari eta kontratu motari dagokienez.

Hala eta guztiz ere, generoaren eta sailkapen multzoaren araberako banaketan azaltzen zaigu gogoetarako lehen datua. Emakumeen eta gizonezkoan artean begien bistako desberdintasuna dago, kasuan kasuko sailkapen multzoari dagokionez; A1 sailkapen multzoan gizonezko gehiago dago eta, aldiz, emakume gehiago daude C1 eta E multzoetan. Dena den, sexuaren araberako banaketa "berezia" antzeman daiteke C2 multzoan, hemen gizonezkoen presentzia askoz ere handiagoa baita; izan ere, multzo

honetan sartzen dira suhiltzaileak, bidezain-gidariak eta basozainak, betidanik nagusiki gizonezkoek bete izan dituzten lanpostuak alegia. Alor horietan, berdintasunerako eman diren aurrerapausoak ia-ia hutsalak izan dira. Anekdotak gisa esan behar dugu, Gipuzkoako Foru Aldundiaren historia osoan, lehendabiziko emakumea oraintxe ari dela suhiltzaile prestakuntzako ikastaroa egiten. Beraz, bide luzea eta lan mardula geratzen zaigu, betidanik gizonezkoek bete izan dituzten lanpostu horietan –bai suhiltzaile, bai bidezain eta bai basozain postuetan– emakumeen presentzia handiagoa ekarriko duten berdintasun handiagoko helburuak lortzeko.

Generoaren araberako langileria-banaketan ikus daitekeen garrantzizko beste datu bat da emakumeen artean gertatzen den bitartekotasuna. Datu horrek erakusten du, gure gizartean, oro har, prekariotasun handiagoa dagoela emakumeen enpleguan; gogoeta hori, ordea, gure analisi-esparrutik kanpo dago. Baina horregatik ez dugu islatu gabe utziko egiaztagarria den egitate hori; gizonezkoekin alderatuta, emakumeen lan egoeraren behin-behinekotasuna askoz ere handiagoa da beti, eta ondorioz, prekarioagoa.

- Buruzagitzetan, generoaren araberako banaketa erakusten duten datuei dagokienez, egiazta daiteke gizonezkoen proportzioa handiagoa dela betidanik “gizonezkoenak” jo izan diren Departamentuetan: Diputatu Nagusiaren Kabinetean, Landa Garapenean, Lurralde Antolaketan, Mugikortasunekoan (Errepideak) eta baita Ogasunean ere. Aitzitik, usadioz “emakumeenak” jo izan diren esparruetan, kopuru bertsuan daude gizonezkoen eta emakumeen buruzagitzak; esate baterako, Kulturean, Gizarte Politikan, edota Foru Administrazio eta Funtzio Publikoan. Usadioz emakumeenak edo gizonezkoenak izan diren zereginen banaketa-eskema berbera ari da gertatzen, orain ere, gure Administrazioaren esparruan.
- Foru Aldundi honetan gizonezkoek gozatu dituzten amatasun baimenen banaketa oso argigarria da; baimen hori 28 emakumek eskatu zuten, eta 6 gizonezkoek. 6 gizonezko horiek, honakoak izan ziren zehazki: 5 suhiltzaile (1 kabo, 3 suhiltzaile eta bigarren jardueran zebilen suhiltzaile bat) eta Ogasuneko unitate eragileko buru bat, MUFACEkoa. Gizonezkoek gozatutako 6 baimen horietatik 5 suhiltzaileak izateak, bi arrazoi izan ditzake: batetik, suhiltzaileen kolektiboa da, gaur egun, Gipuzkoako Foru Aldundiko gizonezko-kolektiborik gazteena; eta bestetik, suhiltzaileen kolektiboak, burutzen duen lan motarengatik –goiz, arratsalde eta gaueko txandetan– zailagoa dauka lan bizitza eta familiakoa uztartzea. Gainera, era horretako baimenak gozatzeak ez die inolako kalterik eragiten beren lanbide karreran. Garbi dagoena da, amatasun baimena emakumeei dagokien elementutzat jotzen dela oraindik ere; baina ezin dugu baztertu amatasun baimen hori 6 gizonezkoek eskatu eta gozatu dutela, eta horrek aurrerapauso txiki bat erakusten du berdintasunerako bidean.
- Adingabeei eta adinekoei laguntzeko eskatu diren baimenen generoaren araberako banaketari buruzko datuek, agerian utzi dute, berriz ere, familia eta lan bizitza bateragarri egiteko bidean dagoen ezberdintasuna. Emakumeek eskatu eta gozatu dituzten baimenak 593 izan dira; eta gizonezkoetan, berriz, 151. Beraz, berretsi behar dugu, gizonezkoen eta emakumeen zereginen banaketan, betidanik eskemari jarraitzen diogula oraindik ere, emakumeak etxe esparrutik etorritako “eginkizunak” betetzera baztertuta. Beraz, bide luzea geratzen zaigu alor honetan berdinketa lortzeko.
- Seme-alabak zaintzeko eszedentzien generoaren araberako banaketari buruzko datuetan ere, aurreko pasartean adierazitako eskema bera errepikatzen da, askoz ere emakume gehiagok eskatu baitu eszedentzia hori: 27 emakumek, 10 gizonezkoen

aldean. Gauza bera esan daiteke jardunaldi murrizketetan ere, generoaren arabera banaketan: 88 emakume, 21 gizonen aldean. Kasu honetan egin beharreko gogoeta garbi dago, adingabeei eta adinekoei laguntzeko eskatu diren baimenen generoaren arabera banaketan gertatzen den bezalaxe: familia eta lan bitzita bateragarri egitea, emakumezkoen dagokien "zeregina" da oraindik ere. Begien bistakoa da emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasuna; izan ere, administrazioaren esparruan, etxeko zereginetatik etorritako "betekizunak" partekatzeko emakumei eta gizonen ematen zaien aukera erabat berdintasunezkoa bada ere, familia eta lan bitzita bateragarri egiteko betekizunak banatzeari dagokionez, betidaniko eskemari eusten zaio, datu horiek agerian uzten duten moduan.

- Prestakuntzaren inguruan dauden generoaren arabera datuek erakusten dutenez, prestakuntza-ikastaroetara joateko emakumeek egin duten eskaera kopurua, gizonenak halako bi izan da. Horrek agerian uzten du emakumeek interes handiagoa dutela era horretako ikastaroetara joateko. Eskaera horiek direla-eta, bada gure zalantzak eragiten dituen datu deigarri bat. Hain zuzen ere, "Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako politikak martxan jartzeko heziketa programa" ikastaroan –helburua 2011ko heziketa-egintzak zituen ikastaroan– egindako lan baten bitartez, Prestakuntzaren alorrean generoak duen eraginari buruzko azterketa batek berretsi digunez, emakumeek gizonenak baino ikastaro gehiago eskatzen dituzten arren, "emakumeen eskaerak gizonenak baino gehiago baztertzen dira". Gizonen eskaerekin alderatuta, emakumeen eskaerak % 10 baino zertxobait gehiago baztertzen dira. Emakumeek aurkeztutako eskaeren % 39,84 baztertzen dira, gizonen aurkeztutako eskaeren % 29aren aldean. Horrek esan nahi du, Administrazioak berak, kasu honetan Gipuzkoako Foru Aldundiak, bere portaera sakonago aztertu behar duela, prestakuntza-ikastaroetan onartzeko garaian. Beraz, aztertu egin behar da ikastaroak onartzeko orain arte erabili izan den prozedura.

Bada garrantziko beste alderdi bat ere, Gipuzkoako Foru Aldundiaren esparruan ematen diren prestakuntza-ikastaroen inguruan: emakumeen proportzioa gizonenak baino askoz handiagoa da "usadioz" emakumeentzako "interesgarriagoak" izan diren ikastaroetan; esate baterako, Komunikazioaren alorrean (asertibotasuna, adimen emozionala, gizarte abileziak,...). Alabaina, gizonen presentzia handiagoa da ikastaro teknikoagoetan. Datu zehatz bat, ezberdintasun horren lekuko: adimen emozionalarekin lotutako ikastaroetan, parte-hartzaileen % 80 edo gehiago emakumeak izaten dira; aldiz, "GPS erabiltzen hastea" bezalako ikastaroetan, emakume oso gutxi izaten da, badirela esateko lain. Hala ere, egia da, gizonen gehiago biltzen dituzten kolektiboek zuzendutako ikastaroak izaten direla. (Azkeneko kasu horretan, GPS erabiltzen ikasteko ikastaro hori, arkitektoei, basozainei, errepideetako langileei eta antzekoei zuzendua zegoen). Hori horrela, egiteko inportantea dauka administrazioak berak: ikastaro horien hartzaileekiko gaur egun dagoen ikuspegia (emakume/gizonen) aldatzea, eta ikuspuntu berdintasunezkoagoa bultzatzea eta transmititzea.

Ondorio gisa esan dezakegu aurrerapauso txiki batzuk antzeman baditugu ere, berdintasunari dagokionez, usadioz emakumeenak eta gizonenak izan diren zereginak eta jarduerak generoaren arabera banatzeko eskemari jarraitzen zaiela, oraindik ere, Funtzio Publikoaren alorrean.

Bestetik, aukera “teorikoak” erabat berdintasunezkoak diren arren, errealitateak erakusten digu berdintasuna lortzeko bidean oso gutxi aurreratu dugula, bai familia eta lan bizitza bateragarri egiteko orduan, eta bai botereko lanpostuetara heltzeko garaian ere (buruzagitza eskuratzea, sustapena...). Errealitateak erakusten digu, halaber, lan asko dagoela egiteke helburu nagusia lortzeko, hau da, Administrazio berdintasunezkoagoa lortzeko.